

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA, GUZTION ERRONKA

### GURE KONPROMISOA

**MUTUALIAK** bere erosketa eta kontratazio publiko berdeko (EKPB) politika pausoz pauso garatzea erabaki du. Horrela, jasangarritasunaren aldeko apustua zehazteko eta aurrera egiteko aukera ematen digun lan-ildo bati ekin diogu.

Erosketa eta kontratazio publiko berdearen aldeko apustua egiten dugu, eta horretarako, konpromiso hauek hartuko ditugu:

- Ingurumenean eragin txikiagoa duten ondasunak eta zerbitzuak erostea eta kontratatzea. Beraz, erosketak eta kontratazioak egiterakoan, produktuen edota kontratatu beharreko zerbitzuen edo lanen irizpide ekonomiko edo teknikoak ez ezik, ingurumen arloan duten portaera ere aintzat hartuko dugu.
- Horiek erabiltzean eta kudeatzean ingurumen jardunbide eta ohitura egokiak ezartzea.

Kontratazio eta erosketa publikoa Europako barne produktu gordinaren % 16 ingurukoa denez, erosketa eta kontratazio publiko berdearen aldeko gure apustuaren bidez, pixkanaka ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuen eta zerbitzuen merkatuen garapena sustatzen laguntzen dugu. Nola? Honako hauek gero eta kontu handiagoan hartuta: erositako materialen eta produktuen ingurumen-alderdiak, kontratuak gauzatzeko metodo eta prozedurak, eta enpresa hornitzaileen eta ekoizleen beraien ingurumen portaera.

Lege-sostengua duen helburu partekatu bat da hori. Hala, gure gizartean trakzio-indarra duela onartuta, erosketa eta kontratazio publiko berdea 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauaren bidez araututa eta babestuta dago; Estatuko legedira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen bidez (9/2017 Legea, azaroaren 8koa) egokitu zen. EAEn, joan den 2016ko irailaren 20an, Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urterako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa onartu zuen.

### GUZTION ERRONKA

Erosketa eta kontratazio publiko berdeko gure politikan aurrera egiteko, **MUTUALIAREN** barne-ahalegina eta lan koordinatua behar dira. Baina ez hori bakarrik; gure enpresa hornitzaileen laguntza jasotzea eta lana partekatzea ere beharrezkoa zaigu. Beste hitz batzuetan esanda, elkarrekin egin behar dugu aurrera; bai eskaeraren aldetik –sektore publikoko entitate gisa– bai eskaintzaren aldetik –enpresa eta pertsona hornitzaile gisa–. Horrek guztiak erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskakizunetara egokitzea exijitzen du, baita eskutik helduta joatea ere.

### ZUEN EGINKIZUNA, ALIATU, ENPRESA ETA HORNITZAILE GISA

Zuen eginkizuna erabakigarria da; erosketa eta kontratazio publiko berdearen koprotagonistak zarete, horrek eskaintzekoak diren produktuetan, kontratatzekoak diren zerbitzuetan, egiteko moduetan, eta azken finean, merkatuan, aldaketa gradualak dakartzan neurrian. Konpromiso hori, funtsean, hiru jarduera-ildotan zehazten da: produktuen eta zerbitzuen ingurumen-hobekuntza progresiboa, kontratazio-pleguetan ingurumen-irizpideak sartzea eta Mutualiarekin komunikatzea.

#### 1.- Produktuak eta zerbitzuak ingurumenaren aldetik modu progresiboan hobetzea

Ingurumen-irizpideak (irizpide teknikoek eta ekonomikoek gain) betetzen dituzten produktuak eta/edo zerbitzuak erosi eta kontratatu ahal izateko, merkatuaren eskaintzak horrekin bat etorri behar du.

Gure enpresa eta pertsona hornitzaileek beren diseinu, garapen, produkzio eta ikerketa prozesuetan ingurumen-aldagaia txertatzearen aldeko apustua egin behar dute, merkatuan nabarmenduko diren eta beren ingurumen portaera dela-eta balioetsiko eta ezagutuko diren produktuak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko.

## **2.- Kontratazio-pleguetan ingurumen-irizpideak sartzea**

Ilido berean, ingurumena gehiago errespetatzen duen merkatu bat garatzen laguntzeko, **MUTUALIA** ingurumen-irizpideak txertatzen ari da modu progresiboan zuzeneko erosketetan eta kudeatzen ditugun produktuak, obrak eta zerbitzuak kontratatzekeo pleguetan. Horrela jarraitzen diogu, euskal administrazio publikoak bezala, bide horretan aurrera egiten ari diren EAEko beste organismo eta instituzio batzuen ereduari, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urterako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programari atxikita.

Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean (azaroaren 8ko 9/2017) oinarritzen gara, horretan argi eta garbi zehazten baita kontratazio-pleguetan ingurumen-alderdiak sar daitezkeela, ondorengo fase hauetan:

- 1. Kontratuaren xedea**
- 2. Zehaztapen tekniko nahitaezkoak eta baloragarriak**
- 3. Lizitatzailak hautatzeko irizpideak**
- 4. Kontratua esleitzeko irizpideak**
- 5. Kontratua gauzatzeko klausulak**

Beraz, **MUTUALIAKO KIDEOK** zuen eskaintzak eta kontratazio-proposamenak plegu berrietara egokitzeko deia egiten dizuegu; eta eskatutako baldintzetatik haratago doazen ingurumen-hobekuntzako iradokizunak egitera animatzen zaituztegu.